



Gizon batek bere bikotekideari eraso egin dio Santurtziko jaietan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 21/07/2024

Erasotzaileak bikotekidea jo du kalean. Gertakari honen aurrean elkarretaratzea deitu dute astelehen honetarako, 19:00etan, udaletxe parean.

Larunbatean gizon batek bere bikotekideari eraso egin zion santurtziko jaietan. Gizonak bikotekidea jo zuen kalean, eta atxilotu egin dute, genero-indarkeria leporatuta. Hau ez da izan jaietan heman den eraso matxista bakarra, izan ere, pasaden astean emakume batek salatu zuen **sexu-eraso bat egin ziotela Santurtziko jaietan**.

Gertakari honen aurrean eskualdeko mugimendu feministak elkarretaratzea deitu du astelehen arratsalderako, 19:00etan, udaletxe aurrean.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/gizon-batek-bere-bikotekideari-eraso